

EDARI ALKOHOLDUNEN ETA ALKOHOL GRADUAZIOAREN SAILKAPENA

Zenbait alkohol-mota daude, baina gizakien kontsumorako bakarra etanola edo alkohol etilikoa da.

Edari alkoholdun guztiek daukate etanola, kontzentrazio handiagoan edo txikiagoan, prozesuaren arabera. Edari alkoholdunak honelakoak izan daitezke:

Hartzituak: ardoa, garagardoa eta sagardoa. 4° eta 15° bitarteko graduazioa dute. Fruten edo zerealen azukreen hartziduraren ondorioz sortzen dira.

Destilatuak: edari hartzituen destilazioaren emaitza dira, eta, beraz, kontzentrazio handiagoa daukate. Uxualak, patxaranak, vodkak, whiskyak, ronak edo ginebrak 40° eta 50° bitartean dute. Horrek esan nahi du edaten denaren %40 edo 50 alkohol purua dela.

Graduazio alkoholikoa

Edari baten graduazioak adierazten du, gutxi gorabehera alkohol etilikoaren zer bolumen duen. Horrela, bada, 13°ko ardo botila batek %13 alkohol purua du.